



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2017ko MAIATZAREN 30ean EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2017ko maiatzaren 30ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Uxue Etxebeste Eizagirre
Onintza Gorostidi Murua

Bere ezin etorria azaltzen dute: Koldobika Jauregi Zinkunegi eta Xabier Mugika Letamendia

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**
 - 2017ko apirilaren 25ean egindako ohiko bilkuraren akta.
 - 2017ko maiatzaren 9an egindako ez-ohiko bilkuraren akta.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. Alkizako Garro baserriaren mendebaldeko fatxadaren goiko partea berritzeko obra baimena eskaera, B.R.R.**
- 5. Alkizako Etxabe baserriko teilatuaren erreteila lanak egiteko obra baimena eskaera, J.I.S.**
- 6. Tolomendiri 2017 urteari dagokion ekarpena burutzea, hala bada.**
- 7. 2017 urterako udal tasen hobari eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 8. D-7 Eranskinaren onespena, Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta, hala bada.**
- 9. Ziurtapen eta zerbitzu enpresa-empresa de certificación y servicios, IZENPE, S.A.-k jaulkitako zerbitzu elektronikoa arautzeko hitzarmenaren onespena, hala bada.**
- 10. Beste batzuk.**
- 11. Erregu, galdera eta mozioak.**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENENGO PUNTUA **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2017ko apirilaren 25eko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.
- 2017ko maiatzaren 9ko ez-ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARRENGO PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Onintza Gorostidi zinegotzia arratsaldeko 20:00 orduetan udalbatza honetara bertaratzen da.

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

08/2017 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 16koa, J.I.G. jaunak eginiko eskaera onestea, ebazten duena, non Alkizako Maitegi baserri ondotik 3 kamioi egur atera behar duenez, Alkizako herri bidea erabiltzeko baimena ematea, ebazten duena.

09/2017 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 16koa, 2018 urterako Alkizako Udalerriko jaiegun bezala, irailaren 8-a larunbata finkatzea, ebazten duena.

10/2017 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 23koa, M.R. jaunak eginiko eskaera onestea, ebazten duena, non Alkizako Poligono 2, 96 partzelatik egurrak atera behar duenez, Alkizako herri bidea erabiltzeko baimena ematea onartzen den.

HIRUGARRENGO PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

IVAP	39,00
IZENPE	472,66
IRAGARRI	272,25



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

SOLRED	116,30
AUDAX	94,55
EDURNE BENGOA	184,40
LYRECO	92,36
IBERDROLA	40,54
AUDAX	45,45
AUDAX	31,82
AUDAX	32,41
IZFE	1.886,01
AUDAX	103,52
AUDAX	148,63
AUDAX	155,84
AUDAX	21,70
AUDAX	80,97
AUDAX	112,89
AUDAX	90,32
EUSKALTEL	63,33
CORREOS	8,47
BIDATEK	943,80
NATURGAS	198,22
SEIKIN	53,52
EBA ERKIZIA	619,37
ARGITU	142,59
BERRI LANTEGIA	41,48
EDP NATURGAS	62,53
EDP NATURGAS	263,89
SOLRED	59,60
MOVISTAR	80,89
MOVISTAR	74,40
IZADI	152,94
TOLOMENDI	152,50
CORREOS	2,15
RADIO POPULAR	313,39
DIONISIO ORMAZABAL	25,33
HARGOI	189,73
CASER	1.150,01
CASER	255,03
KEY-LAN	2,00



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

RECAMBIOS IBARRA	38,91
KEPA MIRANDA	121,60
NATURGAS	4,69
KEPA MIRANDA	315,00
TOLOMENDI	152,50
AUDAX	155,16
EDURNE BENGOA	184,40
BIDATEK	471,90
CUALITIS	144,37
CUALITIS	577,48

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **11.042,80** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARRENGO PUNTUA

ALKIZAKO GARRO BASERRIAREN MENDEBALALDEKO FATXADAREN GOIKO PARTEA BERRITZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, B.R.R.

Ikusirik B.R.R. andreak eginiko eskaera, non Alkizako Garro baserriko mendebaldeko fatxadan konpontze lanak egiteko obra baimena eskaera egin duen.

Ikusirik 2017ko maiatzaren 25ean, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:

“ALKIZAKO “GARRO” BASERRIKO MENDEBALDEKO FATXADAN KONPONTZE LANAK EGITEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

B.R.R. andreak, “Garro” baserriko mendebaldeko fatxadan konpontze lanak egiteko baimena eskatzen du, lan hauen aurrekontua eta gaur eguneko egoera azaltzen duten argazkia aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:

Aurkeztutako idatziaren arabera, Garro baserriko mendebaldeko fatxadaren goialdea saneatu eta pintatu nahi da. Lan hauen aurrekontua, 1.500 €-koa da (BEZ-a gabe).



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2/2006 Lurzoru legearen 199 artikulua arabera,” Lursail, etxe, eraikin eta instalazioen jabeek nahitaez dute ondasun horiek segurtasun, osasun, begirune eta apaintasun publikoko egoera onean mantentzeko eginbeharra. Horretarako, behar diren kontserbatze- eta birgaitze-lanak egingo dituzte, bertako bizigaitasuna eta benetako erabilera bermatzeko.”

Alkizako Hiri antolaketako 6º artikulua, egun dauden mota guztietako eraikinen kanpoaldeko itxuraren aldaketek hirigintza lizentzia behar dutela esaten du.

*“Garro” baserria Alkizako lur ez hiritargarrin kokaturik dago, bereziki Erabilerarik Esleitu Gabeko lurrian. Baserria ,Alkizako arau subsidiarioen katalogoaren barruan sartua dago. 1997ko urriaren 22ko Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuaren Erabakiaren arabera, **A motako** balizko arkeologia guneen babesa du, eraikinen hormez barruko esparrua hartzen duena.*

*Alkizako lur ez hiritargarriko aldatutako araudiaren arabera, aurretik hor dauden baserriak kontsolidatuak gelditzen dira, barne eta kanpo moldaketak onartzen direlarik. Fatxadaren akabera, **argiak, zarpiatuak, pintatuak edo harrizkoak** izango dira.*

Interesa duen eraikin bat izanik, baserrian aurki daitezkeen balio bereziko osagai arkitektoniko edo artistiko guztiak mantenduko dira, esaterako, armarriak, ateburuak, etxaurrearen egituraketa, eta abar. Gipuzkoako Foru Aldundiko ondare departamenduak, kasu hauetan erabili behar diren morteroak, kare edo kare-zementuzkoak izatea gomendatzen du gainera.

Aurkeztutako lanak, aurreko baldintzak betetzen badituzte, udal baimena ematea egokia dela iruditzen zait.

**Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauko segurtasun neurriak gorde beharko dira.*

**Obra hondakinak, baimendutako zabortege batera eramane beharko dira eta lanak amaitzean, eraispene-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA.- B.R.R. andreak eginiko obra baimena eskaera onestea, hau da, Alkizako Garro baserriko mendebaldeko fatxadan konpontze lanak egiteko

San Martin Plaza, 12zkia.20494 Alkiza*Tel.:943 69 02 35 * e-mail: udala@alkiza.eus *web: www.alkiza.eus



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

obra baimena ematea. Betiere, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jartzen duenari baldintzaturik.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki hauen berri interesdunari ematea.

BOSTGARRENGO PUNTUA

ALKIZAKO ETXABE BASERRIKO TEILATUAREN ERRETEILA LANAK EGITEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, J.I.S.

Ikusirik J.I.S. jaunak eginiko eskaera, non Alkizako Etxabe Baserriko teilatuan erreteila lanak egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik maiatzaren 25ean Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:

“ALKIZAKO “ETXABE” BASERRIKO TEILATUAN ERRETEILA LANAK EGITEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

*J.I.S. jaunak, “Etxabe” baserriko teilatuan erreteila lanak egiteko baimena eskatzen du, lanen aurrekontua aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:***

Aurkeztutako idatziaren arabera, teilatuaren konponketa, gaur eguneko teila eta egurrezko oholak berri batzuegatik ordezkatu eta isolamendu termikoa ezartzea izango da, aurrekontua, 26.040,00 €-koa izanik (BEZ-a gabe).

2/2006 Lurzoru legearen 199 artikulua arabera, “Lursail, etxe, eraikin eta instalazioen jabeek nahitaez dute ondasun horiek segurtasun, osasun, begirune eta apaintasun publikoko egoera onean mantentzeko eginbeharra. Horretarako, behar diren kontserbatze- eta birgaitze-lanak egingo dituzte, bertako bizigaitasuna eta benetako erabilera bermatzeko.”

Alkizako Hiri antolaketako 6º artikulua, egun dauden mota guztietako eraikinen kanpoaldeko itxuraren aldatetarako hirigintza lizentzia behar dutela esaten du.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

"Etxabe" baserria Alkizako erabilera berezirik ez duen lur ez-hiritargarrion kokaturik dago. Alkizako arau subsidiarioen arabera baserriak ez du inolako katalogazio edo babes berezirik.

Alkizako lur ez hiritargariaren araudiaren 2 artikulua arabera, teilatuen akabera, zeramikazko teilazkoa edo honen antzekoa izan beharko da.

Hau honela izanik eta eskarian azaltzen diren lanak Alkizako araudiarekin bat datozenez, legeztagarriak direla informatzen dut.

**Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.*

**Obra hondakinak, baimendutako zabortegei batera eraman beharko dira eta lanak amaitzean, eraispin-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean."*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA.- J.I.S. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestea, hau da, Alkizako Etxabe baserriko teilatuan erreteila lanak egiteko obra baimena ematea. Betiere, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jartzen duenari baldintzaturik.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki hauen berri interesdunari ematea.

SEIGARRENGO PUNTUA

TOLOMENDIRI 2017 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Landa Garapen Elkarteak- "Tolomendi-k" aurkeztutako idatzia non 2017ko apirilaren 20an ospatutako Batzar Orokorrean 2017 ekitaldirako Elkartearen aurrekontua onartu zela jakinarazten den.

Ikusirik 2017 ekitaldirako onartutako aurrekontuaren arabera Alkizako Udalar 2.481,82 euro ordaintzea dagokiola.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Tolosako Landa Garapen Elkarte-Tolomendiri 2.481,82 eurotako gastua onartzea eta ekarpena burutzea. Udal aurrekontuetako 422.943.01.01 partidaren kargura.

BIGARRENA.- 2017 urteko udal aurrekontu orokorrean kreditu nahikoa aurreikustea.

ZAZPIGARRENGO PUNTUA

2017 URTEARI DAGOKION HOBARI ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik 2017 urterako ura eta zabor tasen hobari eskaerak egiteko epea zabaldu zela otsailaren 1etik 29arte (biak barne).

Aipaturiko epean bost eskaera aurkeztu ziren.

Ikusirik Gizarte langileak eginiko txostenetan dioena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- J.M.-eri ura eta zabor tasetan % 100eko hobaria onestea.

BIGARRENA.- C.C. -eri ura eta zabor tasetan % 75eko hobaria onestea.

LAUGARRENA.- A.P.P. -eri ura eta zabor tasetan % 100eko hobaria onestea.

BOSTGARRENA.- M.J.O.-eri ura eta zabor tasetan % 100eko hobaria onestea.

SEIGARRENA.- O.M.-ri ura eta zabor tasetan hobaririk ez onestea. Gizarte langileak eginiko txostenean jasotakoari jarraituz.

ZAZPIGARRENA.-Erabaki hauen berri interesdunei jakinaraztea.

ZORTZIGARRENGO PUNTUA

D-7 ERANSKINAREN ONESPENA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO LEGEZKO ORDEZKARIEN ERROLDAN JASOTAKO DATUEN KONTSULTA, HALA BADA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiak eskuragarri jarri duela, D-7 Eranskina, non Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta egin daiteken. Dokumentu honen sinadura, Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Gipuzkoak Lurralde historikoko udalek informazioa elkarri lagatzeko lankidetzaren baitan legoke.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: D-7 Eranskinaren onespena, bertan, Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta egin daitekeen.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakaria den Jon Umerez Urrezola jauna ahalmenu, aipaturiko D-7 Eranskina sinatzeko.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari ematea.

BEDERATZIGARRENGO PUNTUA

ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS, IZENPE, S.A.-K JAULKITAKO ZERBITZU ELEKTRONIKOAK ARAUTZEKO HITZARMENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Ziurtapen eta zerbitzu enpresa-empresa de certificación y servicios IZENPE, S.A.K.-k jaulkitako zerbitzu elektronikoak arautzeko hitzarmena.

Ikusirik aipaturiko hitzarmenaren xedea ondorengoa izango dela:

HIRUGARREN ALDEA Izenperekin lankidetzan arituko da identifikazio eta sinadurako bitarteko elektronikoak jaulkitzen, eta erregistro-erakundetzat jardungo du.

Erregistro-erakundetzat jarduteak berekin ekarriko du zeregin hauek egitea: erabiltzaileen nortasuna egiaztatzea, erregistro-erakundeetan jasotako inguruabarren ziurtagiriak egiaztatzea, eta igortzeko, ezeztatzeko/baliogabetzeko eta berritzeko eskaerak baliozkotu eta onartzea.

Ikusirik Alkizako Udalak interesa azaltzen duela hitzarmen hau onesteko.

Gaia azterturik, Udalbatzak, aho-batez, ondorengoa,



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA: Onartzea Ziurtapen eta zerbitzu enpresa-empresa de certificación y servicios IZENPE, S.AK.-k jaulkitako zerbitzu elektronikoak arautzeko hitzarmena.

BIGARRENGOA: Alkate-Lehendakaria den Jon Umerez Urrezola jauna ahalmentzea aipaturiko hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENGOA: Erabaki honen berri ematea Ziurtapen eta zerbitzu enpresa-empresa de certificación y servicios, IZENPE, S.A.-ri.

HAMARGARRENGO PUNTUA **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

HAMAIKAGARRENGO PUNTUA **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 21.20 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.